



Zaratamoko Udala  
Bizkaia

Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

**IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK ZARATAMOKO UDALAREN 2013KO EKITALDIKO UDAL  
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENA**



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## ZARATAMOKO UDALAREN 2013KO EKITALDIKO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZKO TXOSTENA.

José Manuel Garrote Milán Zaratamoko Udaleko idazkari-kontuhartzaileak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 49.3 artikuluan, Toki Ogasunak arautu dituen Legearen testu bateginaren 191.3 artikuluan eta apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 90. artikuluan xedatutakoa betetzeko, honako hau egin du:

### *TXOSTENA*

Otsailean 2013ko ekitaldiari dagokion aurrekontu likidazioari buruzko dokumentazioa (SICALetik ondorioztatutakoa) jaso dut.

Alkate jaunaren otsailaren 28ko probidentziaren bidez, hori onesteko espedientea abiarazi da ofizioz, eta txostena egiteko eskatu zait.

Txostena egiteko epea Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 83.2 artikuluan oro har ezarritakoa da; beraz, hamar laneguneko da.

#### 1.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA.

5/2013 Foru Araua, ekainaren 12koa, Bizkaiko Toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa (FA).

2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duena (TOLTB).

1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Aurrekontu-egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onartu duena, Tokiko Erakundeetan aplikatzeari dagokionez.

Europar Batasuneko Kontseiluaren 2223/96 zenbakiko araudia (CE), 1996ko ekainaren 25koa, Nazio eta Eskualde Kontuen Europako Sistemari buruzkoa (SEC 95).

500/1990 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, 39/88 Legearen seigarren tituluaren aurrekontuei buruzko lehenengo kapitulua garatzen duena.

Aurrekontua Betearazteko Udal Arauak.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## 2.- LIKIDAZIOA PRESTATZEA ETA ONESTEA.

Indarreko legeriak ezarritakoarekin bat etorriz, ekitaldiko aurrekontu orokorrak urte bakoitzeko abenduaren 31n ixten dira, egun horretara arte aitortutako eskubideei eta obligazioei dagokienez. Abenduaren 31n kobratzeko dauden eskubide likidatuak eta ordaintzeko dauden obligazio aitortuak diruzaintzaren kargupean geratuko dira, eta beren-beregi jaso behar izango dira geroago aipatuko den diruzaintzaren gerakinari buruzko agirian.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

*Toki erakundeek aurrekontu orokorren likidazioari buruzko agiriak hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen prestatu behar dituzte (FAren 49.1 artikulua).*

Aurrekontu orokorren likidazioaren onespina udalburuaren eskumena da, betiere kontuhartzaitzaren alde aurretiko txostena egonik (FAren 49.3 artikulua eta TOLTBren 192.2 artikulua), eta udalbatzari jakinaraziko zaio (FAren 49.3 artikulua eta 500/1900 EDren 90.2 artikulua) berori onetsi ondorengo lehendabiziko bilkuran.

*Toki erakundeek beren aurrekontuen likidazioaren kopia bidaliko diote Bizkaiko Foru Aldundiari, onetsi eta hilabete igaro aurretik. Gero Foru Aldundiak administrazio eskudunei bidaliko die (Foru Arauaren 49.5 artikulua).*

*Lurralde Historikoko toki erakundeek, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Foru Sailari honako agiri hauek jakinarazi behar izango dizkiote: b) Korporazioko buruak onetsi eta hilabeteko epean, 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion likidazioa (Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2014. urteko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 20ko 14/2013 Foru Arauaren 45. artikulua).*

### 3. LIKIDAZIOAREN EDUKIA

Likidazioaren egoera kontu orokorra osatzen duten kontu eta egoeren multzoaren barruan dago; horiek guztiak ekitaldi ekonomiko bakoitza amaitzean osatu behar dira. Likidazioa ez da kontuak emateko modu bat bakarrik, ezpada kudeaketa ekonomikoaren emaitzaren irudikapen zenbakiduna, aurrekontuari eta ekitaldi ekonomiko zehatz bati berariaz mugatua. Kontu orokorraren onespina ez dakar berekin inola ere aurrekontuaren likidazioaren onespina; izan ere, aurrekontuaren likidazioa hurrengo ekitaldiko martxoaren hogeita hamaika baino lehenago egin behar da derrigorrean eta kontu orokorra onetsi baino lehenago betiere.

FAren 47. artikulua ezarritakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa osatuko duten agiriak honako hauek izango dira:

- 1.- Ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa. Atal hauek ditu: Laburpen Kontuak. Aurtengo ekitaldiko sarreraren egoera-orrria. Ordainketa kredituen gastuen egoera-orrria. Konpromiso kredituen gastuen egoera-orrria.
- 2.- Aurrekontu itxien gorabeheren egoera, betiere ekitaldian kobratu beharreko eskubideen gainean eta ordaindu beharreko obligazioen gainean izandakoak adieraziz.
- 3.- Aurrekontukoak ez diren zordunen eta hartzekodunen saldoen egoera, aplikatzeko dauden ordainketak eta sarrerak barne.
- 4.- Ekitaldiaren itxieran dauden bidegabeko sarreraren itzulketengatik hartzekodunen saldoa guztira.
- 5.- Ekitaldiko diruzaintzaren kontua.
- 6.- Itxierako zenbaketa-akta, hainbat kontutako fondoan gauzape fisikoa eta euren bateraketak azalduz.
- 7.- Kobratzeko dauden gaineko azterlana, likidatzen den ekitaldiaren hurrengoan horiek gauzatzea zail edo ezinezko ikusten denean.
- 8.- Sarrera ukituak dituzten gastuetako finantzaketa-desbideratzeen gaineko azterketa.
- 9.- Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza, likidatu den aurrekontuak eta itxitako aurrekontuek sortu dituztenak bereizita.
- 10.- Diruzaintzako gerakina, ekitaldia ixtean.

Espediente honi lotutako kontabilitate eta aurrekontu dokumentuetan adierazitakoaren arabera, ekitaldiko **GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAK** honako laburpen hau eskaini du:



Zarateamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## ZARATEAMOKO UDALA

GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA	
Hasierako aurrekontu kredituak	1.851.793,00
Aurrekontu aldaketak	834.955,69
Behin betiko aurrekontu kredituak	2.686.748,69
Obligazio aitortu garbiak	2.406.922,25
Ordaintzeko dauden obligazioak	233.173,83

Taula horretako datuak ikusita, ondoriozta daiteke ekitaldiko aurrekontuaren behin betiko kredituen % 89,58 betearazi dela (betearazitako gastutzat hartuta obligazio aitortuen fasera, behintzat, heldu dena).

Ekitaldiko SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOaren laburpena honako hau da:

SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA	
Hasierako aurreikuspenak	1.851.793,00
Aldaketak	834.955,69
Behin betiko aurreikuspenak	2.686.748,69
Eskubide aitortu garbiak	2.534.162,59
Kobratzeko dauden eskubide aitortuak	40.621,41
Sarrerren aurreikuspenaren soberakina	- 87.827,34

Sarrerren betearazpenaren azterketatik ondorioztatzen da ekitaldiko aurrekontuaren behin betiko aurreikuspenen % 94,32 betearazi dela (betearazitako sarreratzat hartuta eskubide aitortuen fasera heldu dena). Aurrekontuaren betearazpena zehatzago aztertzeko, sarrerren zein gastuen aurrekontuaren betearazpen-maila azter daiteke, sailkapen ekonomikoa kontuan hartuta:

AURREKONTU GASTUAK	Kreditu guztiak	OAG	%	AURREKONTU SARRERAK	Behin betiko aurreikuspenak	EAG	%
1. Langile-gastuak	668.833,00	607.000,77	90,76	1. Zuzeneko zergak	536.000,00	532.426,18	99,33
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.046.217,00	1.031.373,36	98,58	2. Zeharkako zergak	56.027,00	- 17.829,77	- 31,82
3. Finantza-gastuak	7.774,00	6.241,90	80,29	3. Tasak eta bestelako sarrerak	168.849,00	200.121,61	118,52
4. Transferentzia arruntak	65.036,00	64.343,07	98,93	4. Transferentzia arruntak	1.155.457,43	1.176.864,84	101,85
6. Inbertsio errealak	752.135,26	551.209,72	73,29	5. Ondare-sarrerak	18.280,00	156.798,67	857,76
7. Kapital transferentziak				6. Inbertsio errealak besterentzea	0,00	162.638,41	---
8. Finantza-aktiboak				7. Kapital transferentziak	687.376,50	323.142,65	46,99
9. Finantza-pasiboak	146.753,43	146.753,43	100	8. Finantza-aktiboak	64.758,76		
				9. Finantza-pasiboak			
GUZTIRA	2.686.748,69	2.406.922,25	89,58	GUZTIRA	2.686.748,69	2.534.162,59	94,32

Oharra: Ehunekoak sailkapen ekonomikoko kapitulu bakoitzaren betearazpen maila adierazten du behin betiko kredituen gainean gastuen egoeran eta behin betiko aurreikuspenen gainean sarrerren egoeran.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

Horretatik honako hau ondorioztatu da:

**GASTUAK:** Langile-gastuak, ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak eta transferentzia arruntetatik ondorioztatutakoak neurri handian betearazi direla hauteman da. Izan ere, horiek guztiek behin betiko kredituen gaineko % 90 gainditu dute; inbertsio errealei buruzko 6. kapituluak, aldiz, ez du betearazi % 75. Aldea honako arrazoi honetan datza funtsean: udaletxea konpontzeko obren egikaritzapena, inbertsioaren zati handiena hartzen duena eta martxoan amaituko omen dena.

**SARRERAK:** 2012ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari buruzko txostenean adierazi bezala, ikuspuntu ekonomikotik datu adierazgarrienak, egungo egoeraren adierazgarri argiak direnak, II. kapituluaren daude. Izan ere, eskubideen aurreikuspenen negatiboa egon da. Aurreikuspen negatibo hori bat dator 2012ko ekitaldian azkenean egikaritu ez zen obra batengatik kobratutako zerga baten itzulketarekin (26.288,95 euro) eta 8.380,18 euroko sarrerekin; III. kapituluak (kapitulu horrek defizitarioa izaten jarraitzen du, zerbitzuen kostuaren aldean) eskubideei dagokionez, antzeman daiteke lehendik dauden tasen gehikuntzak eta tasa berrien onespenez ekarritako diru-bilketaren gorakada. Halaber, nabarmenak dira IV. eta V. kapituluaren lortutako emaitzak. Azken kapitulu horri dagokionez, adierazi behar da baimen bati dagokion kanona kobratzeko egindako kudeaketei dagokiela ia osorik; baimena Udalaren 13 zenbakiko herri erabilerako mendian bi lurzati okupatzeko eman zen 2003ko otsailaren 4an, eta amaitutzat jo da 2013an. VI. kapituluak sarrerak udal etxebizitzak besterentzetik ondorioztatutakoak dira.

**AURREKONTU-EMAITZA** (hemendik aurrera, AE) 10/2003 Foru Arauaren 48. artikuluan eta apirilaren 20ko 500/90 Errege Dekretuaren 96. eta 97. artikuluetan arautzen da.

Kuantitatiboki, ekitaldian indarrean dagoen aurrekontu-emaitza ekitaldiko eskubide aitortu garbien eta aldi bereko obligazio aitortu garbien arteko aldea da. Horrek gastuen eta sarreraren zerranda orokorra irudikatzen du, eta, horrela, horiek zein neurritan bihurtu diren udal jarduera finantzatzeko baliabide aztertu ahal da, ekitaldi ekonomiko zehatz bati dagokionez. Hau da, finantzatu beharreko obligazioei aurre egiteko, ekitaldian aitortutako eskubideak zein neurritan izan diren nahikoak aztertzei aukera ematen du.

Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuaren eragiketen emaitza honako hau izango da: ekitaldian ezeztatu diren eta kobratzeko dauden eskubideen eta ekitaldian ezeztatu diren eta ordaintzeko dauden obligazioen arteko aldea.

Ekitaldiko aurrekontu-emaitza aurreko bi paragrafoetan adierazitako zenbatekoen batura izango da.

AERI Foru Arauaren 48.4 artikulua eta 500/90 Errege Dekretuaren 97. artikulua aipatzen dituzten doikuntzak egin beharko zaizkio:

#### 1. Gastatutako kredituak, diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako aurrekontu-aldaketei dagozkienak.

2013ko ekitaldian ez da inolako gasturik egon, 2012ko abenduaren 31n zegoen diruzaintzako gerakina negatiboa izateagatik.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## 2. Ukitutako finantzaketa duten gastuetatik ondorioztatutako desbideratzeak:

Ekitaldiko aurrekontu-emaizta gorantz doituko da ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboen zenbatekoan, baita beherantz ere, TAKJn (Tokiko Administrazioarako Kontabilitate Jarraibidea) bertan ezarritakoaren arabera kalkulatzen diren ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboen zenbatekoan.

Likidatzen den ekitaldian finantzaketa-desbideratze positiboak 162.638,41 €-koak izan dira, eta udal jabetzako ondasun higiezinak besterentzeagatik sortu dira.

Nabarmendu behar da "kutzaren irizpidea" deritzona erabili behar dela diru-laguntzen kontabilitaterako. Horrek esan nahi du zenbateko horiek kobratzeko eskubidea bakarrik aitortu behar dela sarrera materiala udalaren banku-kontuetan egiten denetik edo erakunde emaileak idatziz diru-laguntza behar bezala justifikatu dela eta hori ordainduko dela jakinarazten duenean.

Gastuen proiektuan adierazten denean finantzaketa-eragileak dirua aurreratu duela ukitutako obra, inbertsioa edo proiektua gauzatu baino lehen, finantzaketa-desbideratze positiboak agertzen dira, aurrekontu-emaizta murrizten dutenak. Izan ere, urtean kontabilizatu arren, finantzen aldetik uneko ekitaldian aitortu gabeko obligazioak eta hurrengo aurrekontuen kontura sorraraziko diren beste batzuk babesten dituzten baliabideen soberakina agertzen da.

Gauzak horrela, ekitaldiko AEk honako banakapen hau dauka:

2013KO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA	
Eskubide aitortu garbiak (a)	2.534.162,59 €
Obligazio aitortu garbiak (b)	2.406.922,25 €
Itxitako ekitaldietako sarrerak eta mozkinak (c)	- 6.250,00 €
Itxitako ekitaldietako eskubide ezeztatuak (d)	0,01 €
Aurrekontu-emaizta (e): (a-b) + (c-d)	129.990,33 €
Finantzaketa-desbideratze positiboak (f)	162.638,41 €
Finantzaketa-desbideratze negatiboak (g)	0,00 €
Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako gastuak (h)	0,00 €
Merkataritza-eragiketen emaitza (i)	0,00 €
Aurrekontu-emaizta doitua (e-f+g+h+i)	- 41.648,08

2013ko AEko zenbatekoek argi eta garbi erakusten dute likidatzen den ekitaldiko gastuaren euspena, baita sarreretarako egokitzapena ere. Hori dela eta, zenbateko horiek zerikusi txikia daukate 2011ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta NEGATIBOko zenbatekoekin (512.260,37 euro) eta aurrekontu-emaizta doitua NEGATIBOarekin (312.276,37 euro).

Aurrekontu-emaizta doitua negatiboa izatea, diru-laguntzak kontabilizatzeko moduari dagokionez, nazioko eta



Zaratamoko Udala

Bizkaia

Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

tokiko kontabilitateetan jarraitu beharreko irizpide ezberdinek sortu dute. Kontabilitate nazionalean erakunde ordaintzailearen irizpideari jarraitzen zaio, hau da, ordaintzaileak gastua erregistratzen duenean, transferentziaren hartzaileak aldi berean kontabilizatu behar du, eta zenbatekoa lehenengoaren kontuetan agertzen den berdina izango da. Eragiketa horien aurrekontu-tratamenduaren ondorioz, diru-laguntzen erakunde hartzaileak eskubidea onartuko du sarrera jasotzen duenean.





Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

Ekitaldia abenduaren 31n amaitu zen, eta egun horretarako ez zen Bizkaiko Foru Aldundiaren inolako jakinarazpenik jaso 2013ko ustekabeko gastuei (3672/2013 Foru Agindua, maiatzaren 14koa) buruz (errorea edo ez-egitea egon ezean, hori 22.709,13 eurokoa izango litzateke, hau da, justifikatutako 25.232,37 euroen % 90), ezta Udaletxearen eraikuntza- eta egitura-egoera konpontzeko obrei buruz justifikatutako zenbatekoaren % 75i (71.959,47 euro) buruz ere.

Eskubideak aitortzeko zenbaki horiek kontuan hartuta, aurrekontu-emaizta positiboa izango litzateke: 53.020,52 euro.

### 3.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN (DG) KALKULUA

Aurrekontuaren likidazioarekin batera, beharrezkoa da 10/2003 Foru Arauaren 48. artikulua 5., 6., 7. eta 8. idatz-zatietan, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 191. artikuluan, apirilaren 20ko 500/90 Errege Dekretuaren 101. artikuluan eta horiekin bat datozen gainerako xedapenetan araututa dagoen diruzaintzako gerakina kalkulatzeko.

Diruzaintzako gerakina (DG) Toki Erakundearen kontabilitate eta aurrekontu magnitude nagusia da; urtez urte metatuta, abenduaren 31n gastua finantzatzeko baliabide bat (positiboa bada) eta finantzatu beharreko defizit bat (negatiboa bada) erakusten ditu. Bestela esanda, diruzaintzako soberakina erakundeak izango litzatekeen funts likidoak dira, kobratzeko leudekeen eskubideak abenduaren 31n kobratuak egongo balira eta diru-bilketa horren ondorioz abenduaren 31ko funts likidoekin data horretan bertan ordaintzeko leudekeen obligazioei erantzun gaitzaieke.

DGren osagai nagusiak hiru dira: *Kobratzeko dauden eskubideak; ordaintzeko dauden obligazioak eta fondo likidoak; horiek guztiak ekitaldiaren amaierakoak dira.*

Eskubideen itxurazko aitortpenak, emaitzak puzteaz gain, itxurazkoak diren edo benetako finantza-egoerara doitu ez diren gastu-iguripenak sorrarazten ditu. Hau da, diruzaintzako gerakina handitzean, aurrekontu-aldaketak egiteko aukerak ere gehitzen dira, edo, bestela esanda, hasieran aurreikusitako gastuak baino gehiago egiteko aukera, horretarako estaldura ekonomikorik egon gabe. Horren ondorioz, defizita sortzen da.

Diruzaintzako gerakin horretan bi zati bereizi behar dira:

Ukitutako finantzaketa duten gastuei dagozkien kreditu-gerakinen gehikuntza finantzatzeko diruzaintzako gerakina (Ukitutako finantzaketaren soberakina edo UFGDG-Ukitutako Finantzaketa duten Gastuetarako Diruzaintzako Gerakina).- Gastu horietan eta horiek finantzatzen dituen sarrera-aurrekontuaren aplikazio bakoitzerako gastua hasten denetik likidatzen den ekitaldiaren amaierara arte dauden finantzaketa-desbideratze positiboaren batura da, hau da, proiektuaren barneko finantzaketa-eragile bakoitzerako dagoen desbideratze metatu positiboa.

Ukitutako finantzaketa duten gastuetarako diruzaintzako gerakin hori erabili beharko da horixe sortu duten gastuak finantzatzeko, edo, hala denean, proiektututako gastua osorik edo zati batean egiteko ukoak edo ezintasunak sortzen dituen obligazioak estaltzeko.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (GODG).- Aurreko ekitaldietan lortu diren eta etorkizuneko



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

ekitaldietako aurrekontuak finantzatzeko iturri gisa erabil daitezkeen soberakinak dira. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren zenbateko negatiboak adierazten du Udalak behar baino gehiago gastatu duela, etorkizuneko ekitaldietan zuzendu behar den defizita eraginda, indarreko aurreko araudian ezarritakoaren arabera. Diruzaintzako gerakin osoaren eta finantzaketaren soberakinaren edo UFGDGren arteko aldea da. Superabit hori, hala denean, GDGei dagozkien kreditu-gerakinen gehikuntzaren finantzaketa osatzeko erabil daiteke, eta soberakina etorkizuneko kreditu-aldaketak finantzatzeko baliabidea da. DG kalkulatzean lortutako balioak honako hauek dira:

DIRUZAINZAKO GERAKINA		
<b>1</b>	<b>Kobratzeko dauden zordunak (+)</b>	<b>148.569,48</b>
	Aurrekontu arrunta 40.621,41	
	Itxitako aurrekontuak 99.210,14	
	Bestelako eragiketak 8.737,93	
<b>2</b>	<b>Ordaintzeko dauden hartzekodunak (-)</b>	<b>627.023,09</b>
	Aurrekontu arrunta 233.173,83	
	Itxitako aurrekontuak 5.485,51	
	Bestelako eragiketak 388.363,75	
<b>3</b>	<b>Ekitaldiaren amaierako fondo likidoak (+)</b>	<b>491.877,17</b>
<b>4</b>	<b>Diruzaintzako gerakin likidoak (1-2+3)</b>	<b>13.423,56</b>
<b>5</b>	<b>Zalantzako kobrantzako saldoa</b>	<b>110.148,64</b>
<b>6</b>	<b>Ukitutako finantzaketaren soberakina</b>	<b>162.638,41</b>
<b>7</b>	<b>Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6)</b>	<b>- 259.363,49</b>

#### KOBRAZKEKO DAUDEN ZORDUNEN ZALANTZAZKO KOBRANTZA.

Foru Arauak honako hau ezarri du 48. artikuluan 6. idatz-zatian: "Honela kalkulaturiko diruzaintzako gerakinetik kobraezintzat edo kobragaitzat hartzen diren kobratu gabeko eskubideak kenduko dira; kobratu gabeko eskubide horien zenbatekoa bai banan-banan bai goren mugako portzentaje bat finkatuz zehaztu ahal izango dira. Eskubide kobragaitzak edo kobraezinak zehazteko, zorren aintzinasuna, beren zenbatekoa, harako sarrera mota, hala borondatezko epealdiko nola betearazpideko bilketaren portzentajeak eta toki erakundeak ezarriko dituen balioztapide zehurrak ere hartu beharko dira kontuan. Dena dela, behar bezala aintzatetsi eta kontuetan hartu eta 24 hilabete baino gehiagoko aintzinasuna duten eskubideak kobragaitzat edo kobraezintzat hartuko dira, behar bezala bermatuta egon eta likidatu eta jarraiko ekitaldian kobratzea aurreikusten denean izan ezik, orduan ez baitira eskubide horiek kendu beharko. Eskubide bat kobragaitza edo kobraezina dela pentsatzen bada ere, kontuetan ez da berez inoiz balio gabetuko.

Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onetsi zuen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 193. artikulua, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak gehitu duenak, honako hau ezarri du:

*"Tokiko Entitateek Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioari eta haren osoko bilkurari edo organo baliokideari jakinarazi beharko diote nekez bildu ahal diren ala bildu ezin diren eskubideen irizpide erabakigarrien aplikazioaren emaitza, gutxieneko honako muga hauek daudela:*

*a) Kobratzeko dauden eskubideak, likidazioari dagokion ekitaldiaren aurreko bietako aurrekontuen barnean likidatu direnak, % 25 gutxituko dira, gutxienez.*

*b) Kobratzeko dauden eskubideak, likidazioari dagokion ekitaldiaren aurreko hirugarren ekitaldiko aurrekontuen barnean likidatu direnak, % 50 gutxituko dira, gutxienez.*



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

*c) Kobratzeko dauden eskubideak, likidazioari dagokion ekitaldiaren aurreko laugarren eta bosgarren ekitaldietako aurrekontuen barnean likidatu direnak, % 75 gutxituko dira, gutxienez.*

*d) Kobratzeko dauden eskubideak, likidazioari dagokion ekitaldiaren aurreko gainerako ekitaldietako aurrekontuen barnean likidatu direnak, % 100 gutxituko dira, gutxienez."*

193 bis artikulua lehenengo berritasuna honako hau da: kobratzeko dauden eta, Udalak ezarritako irizpideak aplikatuta bidezkoa izango litzatekeen gutxitze irizpidea alde batera utzita, likidatu diren eskubideen gutxieneko minorazioa ezartzea. Gutxieneko horiek ekitaldi bakoitzeko ezartzen dira, eta honako hauek dira: % 25 likidazioari dagokion ekitaldiaren aurreko bietan, % 50 aurreko hirugarren ekitaldian, % 75 likidazioari dagokion ekitaldiaren aurreko laugarren eta bosgarren ekitaldietan, eta % 100 aurreko gainerako ekitaldietan.

193 bis artikulua bigarren berritasuna honako hau da: eskubide kobragaitz edo kobraezinen zuzkidura horren emaitza bai Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioari bai Tokiko Erakundeko osoko bilkurari jakinarazi behar zaie. Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak, jakin ezean, ez du oraindik zehaztu informazio hori jasotzeko modua, nahiz eta seguru aski Tokiko Entitateekiko Finantza Koordinaziorako Bulego Birtualaren bidez egingo den.

Gure kasuan Bizkaiko Foru Aldundiaren bidez egingo omen da, bera baita Lurralde Historikoko Tokiko Entitateen finantza tutoretza gauzatu behar duena.

Kobratzeko dauden eskubideen barruan honakoak sartzen dira:

- a) Ekitaldian likidatutako aurrekontu eskubideak, kobratzeko daudenak.
- b) Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontu eskubideak, kobratzeko daudenak.
- c) Aurrekontukoak ez diren zordunen kontuen saldoak, aplikatzeko dauden ordainketak barne.

Horrela kalkulaturako diruzaintzako gerakinean kobratzeko dauden eta aldi berean kobragaitz edo kobraezinak diren eskubideak murriztu dira, indarreko legediak eskatutako baldintza guztiak beteta.

Foru Arauak ezarritako irizpidearekin bat etorritik, zalantzazko kobrantza duten kopuruaren zenbatekoa 110.148,64 eurokoa da; horrek beste horrenbesteko doikuntza negatiboa eragiten dio diruzaintzako gerakin osoaren zenbatekoari.

2013ko ekitaldiko likidazioak kobratzeko dauden kopurutzat hartzen ditu erantsitako taulan islatzen diren kantitateak, edo behin-behinean eskubide kobragaitz edo kobraezintzat jo dira. Horiek ere zehaztu egin dira:



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## ZARATAMOKO UDALA

### ZALANTZAZKO KOBRANTZEN 2013KO BALIOESPENA

Ekitaldia	Ekonomikoa	Azalpena	Kobratzeko dauden eskubideak	%	Zalantzazko kobrantza
1999	51400	GURUTZALDE KOOPERATIBAKO ETXEBIZITZAK	4.154,84	100	4.154,84
2000	51400	GURUTZALDE KOOPERATIBAKO ETXEBIZITZAK	7.523,48	100	7.523,48
2001	51400	GURUTZALDE KOOPERATIBAKO ETXEBIZITZAK	17.083,58	100	17.083,58
2005	28200	EIOZ	11.662,51	100	11.662,51
2008	11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK	9.618,08	100	9.618,08
2009	11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK	10.214,05	100	10.214,05
2010	11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK	18.268,56	100	18.268,56
2011	11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK	20.685,04	100	20.685,04
2013	11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK	4.207,84	0	0,00
2013	11400	HIRI LURREN BALIOAREN GAINEKO GEHIKUNTZA	5.800,82	0	0,00
2013	28200	EIOZ	79,00	0	0,00
2013	31003	HILERRIETAKO TASAK	308,02	0	0,00
2013	31016	ARKOTXA PILOTALEKUKO ZERBITZUAK	1.212,90	0	0,00
2013	31201	HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEA	136,00	0	0,00
2013	32109	LURZORUA, LURPEA ETA HEGALA- 4. HH. IBERDROLA	6.236,95	0	0,00
2013	32109	LURZORUA, LURPEA ETA HEGALA- 4. HH. NATURGAS	179,98	0	0,00
2013	32109	LURZORUA, LURPEA ETA HEGALA- 3. ETA 4. HH. NATURGAS	1.977,58	0	0,00
2013	32109	LURZORUA, LURPEA ETA HEGALA- 4. HH. ENDESA	116,25	0	0,00
2013	32111	TELEFONICA S.A.- 4. HIRUHILEKOA	2.324,42	0	0,00
2013	40001	HITZARTU GABEKO ZERGAK (XII-2013)	191,65	0	0,00
2013	41000	EUSKO JAURLARITZA – BAKE EPAITEGIA	1.572,50	0	0,00
2013	41003	EUSKO JAURLARITZA – GLL	1.296,00	0	0,00
2013	41000	EUSKO JAURLARITZA – IRAKURMENAREN SUSTAPENA	1.073,00	0	0,00
2013	41000	EUSKO JAURLARITZA – LIBURUTEGIAK (2013)	2.970,00	0	0,00
2013	54000	HIRI FINKEN ALOKAIRUA	10.938,50	100	10.938,50



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

2013-12-31N KOBRATZEKO DAUDENAK ETA ZALANTZAZKO KOBRANTZA DUTENAK, GUZTIRA	139.831,55	110.148,64
---	------------	------------

Gogoratu beharra dago udalaren diru-bilketa sisteman ahalik eta eraginkortasun-maila handiena lortzeak daukan garrantzia, betiere kobratzeko dauden zorrak murriztu ahal izateko; izan ere, egoera horrek, udalari jarduketa gaitasuna kentzeaz gain, ageriko bidegabekeria sorrarazten du zerga-obligazioak epearen barruan betetzen dituzten zergadunei dagokienez.

Ordaintzeko dauden obligazioen barruan honakoak sartzen dira:

- Ekitaldian aitortu diren eta ordaintzeko dauden aurrekontu-obligazioak, horien ordainketa aginduta egon zein ez.
- Aurreko ekitaldietan aitortu diren eta ordaintzeko dauden aurrekontu-obligazioak, horien ordainketa aginduta egon zein ez.
- Aurrekontukoak ez diren hartzekodunen kontuen saldoak, aplikatzeko dauden sarrerak barne.
- Itzultzeko dauden sarreraren aurrekontu-eragiketak.

#### **DIRUZAINZAKO GERAKIN NEGATIBOAREN ONDORIOAK:**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 49.4 artikulua ondokoa dio:

“Aurrekontua likidatzen denean diruzaintzako gerakina negatiboa bada, udalbatzak, egiten duen lehenengo bilkuran, aurrekontu berriko gastuetan mentsaren kopurua kendu behar du.

Gastuak ezin txikitu badira, kreditu eragiketa bat kontzertatu ahal izango da, haren zenbatekoan, betiere arau honetako 34. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen badira.

Aurreko idatz-zatietan aurreikusitako neurrietatik bat ere hartzen ez bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontua ments hori baino txikiagoa ez den zenbatekoko superabitarekin onetsi beharko da.”

Txosten hau sinatzen duenaren iritziz, lehen aipatutako arauak likidazioaren ondoriozko diruzaintzako gerakinari buruz egiten dituen aipamenak gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinari buruzkoak dira. Hau da, ekitaldia ixtean, finantzaketa-desbideratze positiboak kendu ondoren ateratzen den diruzaintzako gerakinari buruzkoak.

Horrela, bada, aipatutako arauak jasotzen duten prozedura ezinbestean gauzatu behar du Udalak. Hala ere, gai horri dagokionez, hainbat neurri hartu dira, eta neurrien buruan, hasiera batean, Aurrekontuen Egonkortasunerako 18/2001 Lege Orokorra, abenduaren 12koa, onetsi zen. Ondoren, Aurrekontu-egonkortasunari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onetsi duen abenduaren 28ko 2/2007 Legegintzako Errege Dekretua onetsi zen, eta gaur egun Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 21.1 artikulua honakoa xedatu du: “aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua edo gastuaren araua betetzen ez bada, betetzen ez duen administrazioak plan ekonomiko-finantzariora egingo du, urtebetean helburuak edo gastuaren araua betetzea ahalbidetzen duena. Plana onesteko organo eskuduna Udalaren osoko bilkura da, lege testu beraren 23. artikuluan 4. idatz-zatiak xedatu bezala”.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

*Gure kasuan, 2012ko ekitaldiari dagokion Aurrekontua Betearazteko 42. arauak (diruzaintzako gerakina) ondokoa dio hitzez hitz: "... "... Gerakina negatiboa balitz, Udalbatzak egiten duen lehen bilkuran, gastuak murriztu beharko lituzke aurrekontu berrian, gutxienez, aurrekoan sortutako defizitaren zenbatekoa berdintzeko. Hori egin ezin izango balitz, ezta kreditu-eragiketak hitzartu ere, hurrengo ekitaldiko aurrekontua hasierako superabitaz onartu beharko da, gutxienez, defizit horren pareko zenbatekoan."*

*2011ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioa orekatuta ez dagoenez, toki erakundeak ekonomia eta finantza plana egin eta onetsi behar izan zuen epe ertainean, hori zuzentzeko. Udalaren osoko bilkurak hori onetsi zuen 2012ko azaroaren 29an egindako bileran, eta asmoa egoera orekatura itzultzea da 2015eko ekitaldiaren amaierarako. Planaren betetze-maila "erlatiboa" da, aurrekontuari dagokionez. Sarrerei dagokienez, zenbatekoak neurri handian doitu dira. Hala ere, ez da gauza bera gertatu gastu guztiekin, udaleko langile publikoen soldata murrizketak eta izozketak izan ezik.*

*Bilera horretan bertan hornitzaileei ordaintzeko Doikuntza Plana onetsi zen. Bizkaiko Foru Aldundiak aldeko txostena eman zion doikuntza plan horri 2012ko azaroaren 16an, eta bertan Udalarari honako hau gogorarazten zitzaion, besteak beste:*

*"... 2.- 111/2012 Foru Dekretuaren 6. artikulua ezarri bezala, ekainaren 21eko 5/2012 Foru Arauan ezarritako zorpetze eragiketak hitzartzen dituzten udalek, aurrekontuaren likidazioarekin batera, onetsitako doikuntza planaren egikaritzapenari buruzko kontuhartzailletza txostena bidali beharko diote urtero Lehendakaritza Sailari.*

*3.- Doikuntza plan honen indarraldian diruzaintzako gerakin negatiboa sortzeak hurrengo ekitaldian inbertsio berriak egiteko debekua ekarriko du berekin.*

*4.- Doikuntza plana ez betetzeak Bizkaiko Foru Aldundiak deitzen dituen diru-laguntzetan onuradunaren izaera eskuratzeko ezintasuna ekarriko du".*

*Bigarren puntuan xedatutakoa ("... onetsitako doikuntza planaren egikaritzapenari buruzko kontuhartzailletza txostena") betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzeko hau sinatu duenak prestatu duen doikuntza planaren egikaritzapenaren txostenaren kopia erantsi zaio honi.*

*Txosten hau idazteko orduan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren Baso Zerbitzuaren jakinarazpena jaso da, hobekuntzen fondoan eskuragarri dagoen saldoaren berri ematen duena: guztira, 13.628,06 euro.*

#### **4.- AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN AZTERKETA .-**

*Aurrekontu-egonkortasunaren betetze-mailari buruzko azterketa txosten independente batean jasoko da, eta txosten horrek honakoa osatuko du.*

#### **5.- AURREKONTU-RATIOAK**

*Udal honen ekonomia eta finantza egoeraren inguruko informazio gehiago ematearren, ondoan adierazitako aurrekontu-ratioak kalkulatu dira, Herri Kontuen Epaitegiak eta autonomia erkidegoetako kanpoko kontrol organoek egiten duten moduan:*

*Kalkuluak egiteko biztanleriaren kopurua abenduaren 20ko 1016/2013 EDn (abenduaren 28ko, larunbata, Estatu Aldizkari Ofiziala) ezarritakoa da, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) webgunean ageri dena: 1.650 biztanle.*



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

### Biztanleko ahalegin fiskala

AF= I., II. eta III. kapituluetan (sarrerak) aitortutako eskubide garbiak / zuzenbidezko biztanleria  
AF= 714.718,02 € / 1650 = 433,16 €/biztanle

Presio Fiskalak zuzeneko zerga, zeharkako zerga, tasa eta bestelako sarrerengatiko eskubide aitortuen zenbatekoa adierazten du, biztanleen kopuruaz zatitutakoa. Adierazle hori udalerraren gaitasun fiskalaren, ordenantzetan adierazitako tasen eta kudeaketaren eraginkortasunaren arabera da. Aurreko ekitaldiaren aldean, 10,74 €-ko gehikuntza ekarri du biztanleko.

### Udalaren Zerbitzu eta Azpiegituren ziozko mantentze-gastuak

AG= II. kapituluan (gastuak) aitortutako obligazio garbiak / zuzenbidezko biztanleria  
AG= 1.031.373,36 € / 1650 = 625,07 €/biztanle  
Aurreko ekitaldiaren aldean, 89,05 €-ko beherakada ekarri du biztanleko.

### Elkarte pribatuek egindako jardueren ziozko gastua

JG= IV. kapituluan aitortutako obligazio garbiak / zuzenbidezko biztanleria  
JG= 64.343 € / 1650 = 39,00 €/biztanle  
Aurreko ekitaldiaren aldean, 5,52 €-ko gehikuntza ekarri du biztanleko.

### Biztanleko kapital-gastuak

KG= VI. eta VII. kapituluetan aitortutako obligazio garbiak / zuzenbidezko biztanleria  
KG= 551.209,72 / 1650 = 334,07 €/biztanle  
Aurreko ekitaldiaren aldean, 91,88 €-ko beherakada ekarri du biztanleko.

### Biztanleko finantza-zama

BFZ= III. eta IX. kapituluetan aitortutako obligazio garbiak / zuzenbidezko biztanleria  
BFZ= 152.995,33 € / 1650 = 92,72 €/biztanle  
Aurreko ekitaldiaren aldean, 56,21 €-ko gehikuntza ekarri du biztanleko. Hala ere, adierazi behar da obligazio horietatik 82.820,43 € Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza finalista bati dagozkiola. Hortaz, kopuru hori kontuan hartuko ez balitz, 2012ko ekitaldiko zenbatekoaren antzekoa izango genuke, hau da, 63.933,00 € eta 38,75 €, hurrenez hurren, itxi berri den ekitaldian eta 60.723,24 eta 36,51 € aurreko ekitaldian.

Zorpetze maila: Finantza-zama (Gastuen III. eta IX. kapituluak – Finantzaketa berria) / Sarrera arruntak  
(1. eta 5. kapituluaren artekoak)\* 100 = 152.995,33 € /  
2.048.381,53 = % 7,47

### Transferentzia arruntekiko menpekotasuna

Transferentzia arruntengatiko sarreren bidez ordaintzen diren gastu arruntaren ehunekoa = IV. kapituluan aitortutako eskubide garbiak / I.-IV. kapituluetan aitortutako obligazio garbiak  
TAM= 1.176. 864,84 / 1.708.959,10 =% 68,86  
Aurreko ekitaldiaren aldean, % 5,67ko gehikuntza ekarri du.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

### Baliabide arrunten nahikotasuna gastu arruntak finantzatzeko

Sarrera arruntak	Eskubide aitortu garbiak	Gastu arruntak	Obligazio aitortu garbiak
1. Zuzeneko zergak	532.426,18	1. Langile-gastuak	607.000,77
2. Zeharkako zergak	- 17.829,77	2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	1.031.373,36
3. Tasak eta bestelako sarrerak	200.121,61	3. Finantza-gastuak	6.241,90
4. Transferentzia arruntak	1.176.864,84	4. Transferentzia arruntak	64.343,07
5. Ondare-sarrerak	156.798,67		
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.048.381,53</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.708.959,10</b>

Baliabideen nahikotasuna = Eskubide aitortuak – Obligazio aitortuak = 339.422,43

Kalkuluak argiro erakusten digu sarrera arruntak nahikoak ote diren gastu arruntak ordaintzeko. Sarrera arruntak nahikoak ez badira, arazoa sortzen da, kapitalaren ziozko sarrerak kapitalaren ziozko gastuei lotuta daudelako eta, beraz, ezin dira sarrera horiek baliatu gastu arruntak finantzatzeko. Alde horretatik, kalkulu horren helburu nagusia da ondare-galerarik gertatzen ari den aztertzea. Ondare-galera gertatuko litzateke, gastu arruntak kapitalaren ziozko sarreraren bitartez ordainduko balira.

### 6.- AURREZKI GORDINA ETA GARBIA

Toki erakundeak zorpetu ahal izateko, Toki Ogasunei buruzko Legeak aintzat hartzen dituen magnitudeetako bat aurrekontuko aurrezki garbia da; magnitude hori positiboa denean, zorpetzeko eragiketak egin nahi badira, ez da lortu behar Ogasun Ministerioaren baimenik (gure kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren baimenik, Lurralde Historikoan toki erakundearen gaineko finantza-babesaren eskumena daukan organoa den aldetik).

Aurrezki gordinak, finantzakoak ez diren gastu arruntak estali ondoren, erabilgarri geratzen den sarrera arrunten zatia adierazten du. Emaiza honela kalkulatzen da: sarreraren ataleko batetik bosterako kapituluetan (biak barne) likidatutako eskubideen zenbatekoaren eta gastuen ataleko bat, bi eta lau kapituluetan aitortutako obligazioen zenbatekoaren arteko kenketa. Nolanahi ere, aurrezki gordinak finantza-zama edo handiagoa izan behar du. Bestela, Udalak ezin izango lioke horren ordainketari aurre egin, eta ez luke autofinantzaketarik izango inbertsioetarako.

(+) Eragiketa arrunten zioz likidatutako sarrerak: 2.048.381,53 euro. (-)  
Eragiketa arrunten zioz likidatutako gastuak: 1.708.959,10 euro.

**Aurrezki gordina:**  
339.422,43 €

Aurrezki garbiak finantza-zamaren ordainketa gauzatu ondoren geratzen den aurrezki gordinaren zatia adierazten du. Baliabide propioen bidez inbertsioak finantzatzeko Udalak duen gaitasuna adierazten du. Aurrezki garbiak positiboa izan behar du, gastu arruntak finantzatzeko kapital-sarrerak erabil ez daitezzen.





Zaratomoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratomo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratomo@bizkaia.org)

Zorpetze marjinak finantza-zamaren ordainketa gauzatu ondoren erabilgarri dagoen aurrezki gordinaren proportzioa adierazten du, hau da, autofinantzaketa.

Aurrezki garbia kalkulatzeko, *urteko amortizazio teorikoaren* (UAT) zenbatekoa murriztu behar da, eta, era berean, kontuan hartu behar da aurrezki garbian ez direla kontabilizatuko diruzaintzako gerakin likidoaren bitartez finantzatzen diren obligazio aitortuak, kreditu-aldaketetatik ondorioztatzen badira.

Gure kasuan, urteko amortizazio teorikoa kalkulatzeko, 2013ko ekitaldian itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatu behar da, Udalkutxaren likidazio negatiboen ziozkoa: 63.933 euro, Doikuntza Plana onestearen ondorioz banketxeekin hitzartutako mailegu kontratuaren bigarren klausulan lehenengo bi urteetako amortizaziorik gabeko aldia biltzen baitu.

Aurrezki gordina: 339.422,43 euro - DGLren bitartez finantzatu diren OAG: 0,00 euros - UAT: 63.933,00 euro =  
**Aurrezki garbia:**  
**275.489,43 euro.**

Ikus daiteke gastu euspenaren neurriek eta Udalaren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 29ko bileran onetsitako finantza onbideratzeko planean eta doikuntza planean ezarritakoek 2011ko ekitaldiko 167.913,67 euroko aurrezki gordin negatibotik 275.489,43 euroko aurrezki garbi positibora pasatzea eragin dutela.

Aurrezki gordin erlatiboa (Aurrezki gordin absolutua / Sarrera arruntak (1. eta 5. kapituluaren artekoak)\* 100) % 16,57koa da, eta aurrezki garbi erlatiboa (Aurrezki garbi absolutua / Sarrera arruntak (1. eta 5. kapituluaren artekoak)\* 100), berriz, % 13,45koa.

## 7.- KAPITAL BIZIAREN EHUNEKOA (zorpetze-maila)

Ondokoa ere bete behar da: epe laburrean zein epe luzean indarrean dauden mailegu-eragiketa guztietan jasotako kapital bizia ezin da 2013ko ekitaldian likidatutako baliabide arrunten % 110 baino handiagoa izan. 2013ko abenduaren 31ko zor bizia: 77.654,25 euro / 2.048.381,53 = % 3,79

Abenduaren 20ko 14/2013 Foru Arauaren 44.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, kapital bizia kalkulatzeko ondorioetarako ez dira kontuan hartuko toki erakundeek Udal Finantzaketarako Foru Fondona-Udalkutxaren behin betiko likidazioen ondorioz itzuli behar dituzten saldoak. Horrenbestez, kontuan hartu beharreko zenbatekoak honako hauek izango dira: 58.772,01 / 2.048.381,53 = % 2,87. Beraz, baldintza hori argi eta garbi bete da.

## 8.- AURREKONTUAN EGOZTEKO DAUDEN GASTUAK.

Honako likidazio honek emandako datuei kalterik egin gabe, EZ dakit onesteko dagoen fakturarik dagoen, aurretiazko inolako tramiterik gabe eta aurrekontuko esleipen egokirik gabe egindako gastuei dagokienik. Hau da, kontabilitatean jaso gabeko zorrak izango lirake, aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina kalkulatzeko ondorioetarako; alabaina, zorrak benetan egongo lirake, eta Udalak inoiz ordaindu beharko lieke hornitzaileei, betiere jasotako zerbitzuekin ados badaude udal agintariak.

Aurrekontuan aplikatzeko dauden fakturek ordaintzeko dauden obligazioak areagotzen dituzte, eta, obra, zerbitzua edo hornidura behar bezala gauzatu bada, bidegabeko aberastearen printzipioari jarraituz, gastuak erantzun beharreko obligazio bilakatzen dira Udalarentzat eta, hortaz, diruzaintzako gerakinaren zenbatekoa oraingo kontabilitateak adierazitakoa baino txikiagoa izango litzateke.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## 9.- ONDORIOAK

a) *Aurrekontu-emaiza*: Aurrekontu-emaiza negatiboa egon da, aurretik azaldutako arrazoiak direla eta. Hala ere, bat dator indarreko legediarekin.

b) *Diruzaintzako gerakina*: *Negatiboa* izaten jarraitzen du. Diruzaintzako gerakinak esaten digu nolako ahalmena daukan administrazioak obligazioei aurre egiteko epe laburrean. Diruzaintzako gerakina positiboa bada, epe laburrean eskura daitezkeen baliabideen zenbatekoa epe laburrean ordaindu beharreko zorren zenbatekoa baino handiagoa da. *Emaiza, ordea, negatiboa bada, udal honetan gertatzen den moduan, erakundeak likidezia-krisiari aurre egin behar dio, baliabideen bitartez ezin baitie hartutako obligazioei aurre egin.*

2011ko aurrekontu-ekitaldiari zegokion likidazioa 313.756,69 eurokoa izan zen hasieran, nahiz eta ondoren faktura gehiago agertu ziren, Doikuntza Plana onestea ekarri zutenak. Likidazio horren ondoriozko gerakin negatiboari aurre egiteko, Udalaren osoko bilkurak, 2012ko azaroaren 29an, ostegunean, egindako ohiko bileran, ekonomia eta finantza plana onetsi zuen; plan horren bidez, sarrerak gehitzeko eta gastuak murrizteko beharrezko neurriak hartu ziren; txostena idatzi den egunean argi eta garbi antzeman daiteke gerakin negatiboak gutxitzen jarraitu duela, eta aurreikusitako epean beharrezko aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna lortuko direlakoan nago.

c) *Aurrekontu-ratioak*: Arestian erakutsitako emaitzei erreparatuta itxaropentsuena honako hau da: sarrera arruntak nahikoak izaten hasi dira, gastu arruntak eta amortizazioak ordaintzeko.

d) *Aurrezki garbia*: *Positiboa*. Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantza iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sor dezaketen aurrezki garbia, diruzaintzako gerakinak eta diru-laguntzen edo zorpetze berrien bidez eskuratzen duten kanpoko finantzaketa. Aztertutako aldiko sarreraren eta gastuen zenbatekoen bilakaerak aurrezki garbiaren bilakaera positiboa eragin du, batez ere, sarrera arruntak gehitzeagatik eta funtzionamendu gastuak gutxitzeagatik. Gainera, horrek kapital-eragiketarak finantzatzea ahalbidetu du ekitaldian, zati batean, behintzat.

e) *Zorpetze maila*: Kontabilitateko datuak aztertuta, eskakizun hori betetzen dela egiaztatzen da.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAREN PROPOSAMENAK:

- Behar-beharrezkoa da emaitzak arazteko espedienteak tramitatzen jarraitzea, ekitaldi itxietan kobratzeke dauden eskubide aitortuak kitatzeko. Horiek behar ez bezala ager daitezke udalaren kontabilitatean, idazpena bikoiztu delako, kontabilitatean akats egin delako, preskribatu direlako edo udal kontabilitatean egotea desegokia dela adierazten duten beste arrazoi batzuegatik.

- Udalaren oinarritzko zerbitzuei eusteko erabat ezinbestekoa ez den gastu arrunta murriztea eta horri eustea; hori Gastu arruntei eta Zerbitzuei buruzko II. kapituluan zehaztu beharko litzateke batez ere. Honakoa dakar: Udalak beherantz berraztertuko beharko luke egun indarrean dauzkan kanpoko kontratu guztien zenbatekoa; jaietako gastuak murriztu beharko lituzke; telefono mugikorren ziozko gastua gutxitu beharko luke; argiteria publikoaren kontsumoa hobetu beharko luke...

- Udalaren baliabideak handitu beharko lirateke, ordenantzak berraztertzen jarraituta. Horrela, baliabide horien bitartez ehuneko handiagoa lortuko da aurrekontuaren guztizko finantzaketan eta IV. kapitulutik datozen sarrerekiko menpekotasuna (beste administrazio batzuen ekarpenak) murriztuko da.

Udalaren jabetzako hiri izaerako ondasun higiezinak dagokienez, berriro diot higiezin horietako batzuen egoera erregularizatu beharko litzatekeela eta ondasun horiek Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiak dakartzan arauen eredura egokitu beharko liratekeela.

2013ko ekitaldian besterentzeen zenbatekoak 162.638,41 euroko sarrerak ekarri ditu; sarreren 7. eta 8. kapitulutako aurreikuspenen (687.376,50 eta 64.758,76 euro, hurrenez hurren) batura gastuen 6. kapituluan adierazitako zenbatekoarekin (752.135,26 euro) bat datorrela kontuan hartuta, horiek guztiak finantzaketa-desbideratze positibotzat jo dira, eta, horren ondorioz, ukitutako finantzaketa duten gastuetarako gerakinaren zati dira.

Adierazi behar dut oso garrantzitsua dela finantzaketa-desbideratzeak behar bezala kontrolatzea, bai sarrera batzuek berariazko helburuak izatea dakarren araudia betetzeko bai diruzaintzako gerakinaren okerreko erabilerak etorkizunean finantza tirabirak sortzea eragozteko.

Udalaren 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari buruzko aginduzko txosten hau likidazioaren datuetan oinarrituta egin da, eta aldeko txostena da, bertan jasotako iritziak gorabehera eta txosten honen azterketa zehatzagoari kalterik egin barik, hala badagokio, Kontu Orokorraren nondik norakoak ematen direnean.

Zaratamon, 2014ko martxoaren 8an  
Idazkari-kontuhartzailea

José Manuel Garrote Milán



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## **AURREKONTU-KUDEAKETARAKO FRANSKIN OSAGARRIAK**

### ***LANGILEEN ARAUBIDEAREN ANALISIA ETA DEKRETUEN ETA EBAZPENEN LIBURUA ERAMATEARI BURUZKO ANALISIA.-***

Osorik lotzen natzaio 2011ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren inguruan idatzitako txostenari eta, bereziki, plantillaren osaerari. Izan ere, zerbitzuak kanpoko kontratazioaren bidez ematen ari dira, nahiz eta jurisprudentzia finkatu batek ezarri duen udal plantillako langile finkoek eman behar dituztela legediak Tokiko Erakundeei agindutako zerbitzu finkoak eta derrigorrezkoak. Hori 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian “zeharka”? jaso zen, Tokiko Erakundeak behartzen baitziren 2012ko abenduaren 31 baino lehen aplikazio praktikoan kanpoko zerbitzuen gauzatze zuzena bermatzen zuten jarraibideak ezartzera, azken urteetan langileen arloan ezartzen joan ziren murrizketak baliogabetuta gera ez zitezen, zerbitzuen enpresa adjudikaziodunek langileen kudeaketa aginduak behar ez bezala betetzeagatik.

2013ko abenduaren 31n, Udalak ez du Lanpostu Zerrenda eguneraturik (azkena 2004ko otsailaren 16an onetsi zen), nahiz eta tresna horrek langileen beharizanak zehaztu, lanpostu bakoitza sailkatu eta hori gauzatzeko eskatutako betekizunak zehazten dituen. Horrenbestez, ez ditu betetzen Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 13. artikulua eta hurrengoak.

Auzitegi Gorenaren 2010eko urriaren 29ko epaiak, 2012ko abenduaren 14ko beste batek berretsi duenak, Herri Administrazioak behartzen ditu aurreko ekitaldietatik datozen eta bitarteko funtzionarioak hautatuz edo aldi baterako kontratuak gauzatzuz bete diren lanpostu hutsak lan publikoko eskaintzetan derrigor gehitu beharra betetzera, eta alde horretatik ez diete eragiten Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urteko legeetako debekuek eta mugek.

Berrito ere adierazi nahi dut, zerbitzua hobeto emateko, komenigarria dela Gizarte Ongizateko Arloan lan egiten duten langileen lanaldia handitzeko aukera aztertzea. Horren urritasunak, krisiaren ondoriozko lan kargaren gehikuntzak eta beste gertaera “zehatz” batzuek lanaldi erdian lan egiten duten bi langileak gainezka eta beteta egotea eta ohiko lanalditik kanpo aparteko orduak egitea eragin dute, aparteko ordu horiek Udalaren osoko bilkurak onetsitako hitzarmen arautzailean gehienez ezarritakoak baino askoz gehiago izan direla.

Plantillari dagokionez, “bitarteko funtzionarioen” bidez modu mugagabea beteta dauden lanpostuez gain, erabat beharrezkoa da teknikariaren lanpostu bat, gutxienez, sortzea Hirigintza Arlorako (ahal dela, hori goi mailako arkitektoa izango da, eta berariazko jakintzak izango ditu hirigintzan eta ingurumenean). Gaur egun zerbitzu hori ematen da, kanpoko hiru pertsona kontratatuta: goi mailako arkitektoa, arkitekto teknikaria eta aholkulari juridikoa. Kanpoko zerbitzu horien guztizko kostua urtero gutxi gorabehera ehun eta berrogei mila eurokoa da.

***ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOAREN ANALISIA.- 2012ko ekitaldiko Aurrekontuaren Likidazioaren harira idatzitako txostenari heltzen diot osorik.***



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

### **UDAL-JARDUERAREN BESTE EREMU BATZUK AZTERTZEA**

**Hirigintza eta Irisgarritasuna sustatzea.** *Osorik lotzen natzaio 2011ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren inguruan idatzitako txostenari. Adierazi behar da, ekitaldia amaitu baino pixka bat arinago, kontratazio espediente bat abiarazi dela, haren helburua Irisgarritasun Plana prestatzea dela.*

**Lan Arriskuak Prebenitzeari buruzko Legea.**- *2011ko ekitaldian kanpoko prebentzio zerbitzua emateko bi urteko kontratua sinatu zen, Laneko Segurtasunaren, Industri Higienearen, Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatuaren eta Osasunaren Zaintzaren espezialitateetan. Likidatzen den urtean kontratatutako merkataritza-etxeak gauzatu dituen jarduketan berri izan dut, eta, halaber, kontratu berri bat sinatu da, eremu horretan garatu beharreko jarduketa berrien egutegia zehaztu duena.*

**Diru-laguntzak.**- *Ez du aipatzeko moduko berritasunik, 2012ko ekitaldiaren aurrekontuaren likidazioaren inguruan idatzitako txostenaren aldean. Hala ere, eta diru-laguntzak emateko prozedurari, publizitateari, irizpideei eta zenbatekoari buruzko alde zehatzak argitzeko asmoz, honako hau jakinarazi nahi dut:*

**LEHENENGOA.**- Izendun diru-laguntzen kasuan emateko prozedura diru-laguntza emateko eskabidea aurkeztuz abiarazten da.

**BIGARRENA.**- Diru-laguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak dira. Beraz, ez dute eskubiderik sortzen onuradunen alde, eta horiek emateak ez dakar inola ere berriro eman beharra.

**HIRUGARRENA.**- Publizitatea ez da beharrezkoa, besteak beste, diru-laguntzek izendun esleipena dutenean aurrekontuetan eta emandako diru-laguntzen zenbatekoak, banan-banan hartutakoak, 3.000 eurotik beherakoak direnean. Dena den, horretatik ezin da ondorioztatu legeak zuzeneko laguntzak 3.000 eurotik beherakoak direla esaten duenik. Izan ere, legeak argi eta garbi adierazten duena honako hau da: ez da beharrezkoa aldizkari ofizialean argitaratzea 3.000 eurotik beherako diru-laguntzak (Udalak onetsitako diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzan beren-beregi adierazi da ez dela beharrezkoa aurrekontuan izen eta guzti ezarritako diru-laguntzen publizitatea).

**LAUGARRENA.**- Eman beharreko zenbatekoak ezartzeko jarraitzen diren irizpideei dagokienez, Udalaren osoko bilkurak 2012ko ekitalditako udal aurrekontua onesteko onetsitakoak eta Aurrekontu Betearazpeneko Udala Arauetan aipatutakoak baino ez dira.

### **KONTUHARTZAILTZAREN FUNTZIOA AZTERTZEA**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak 67. artikuluan eta Tokiko Ogasunei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 214. artikuluan xedatutakoari jarraiki, kontu-hartzearen eginkizunaren helburua toki erakundearen egintza guztiak, betiere haiek eskubide eta obligazio ekonomikoak edo gastuak aitortzea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsioa, eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasu bakoitzean aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.



Zaratamoko Udala

Bizkaia

Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

Kontuhartzaitzaren eginkizunean ondorengoak sartzen dira:

Eskubideak edo obligazio ekonomikoak sortzea edo balioen funtsak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea, ordainketaren kontu-hartze materiala, eta inbertsioen eta diru-laguntzen aplikazioaren kontu-hartze eta egiaztapen materiala.

2010eko ekitaldian kanpoko enpresa batekin Udaleko Kontuhartzaitzaren Arloan laguntza eta aholkularitza ekonomikoaren lanetarako (aurrekontuak egin, kredituak aldatu, aurrekontua likidatu, zergak bildu, saneamendu ekonomiko-finantzarioen planak gauzatu, Kontuhartzaitzaren Arloarekin zerikusia duten txostenak prestatu, udal-inbentarioa, lan-aholkularitza, udal-kontabilitatea mekanizatzea, etab.) kontratua sinatu zen. Harrezkero, nire kontuhartzaitza lana ezin da egokitzen jo erabat. Hala ere, uste dut bidezkoa dela 2013ko ekitaldi osoan aipatutako eremu guztietan sorrarazi zaidan inplikazioa nabarmentzea.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

***IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK ERAKUNDEAREN 2013KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAN AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN HELBURUAREN BETETZE-MAILA EBALUATZEARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENA.***

José Manuel Garrote Milánek, Udaleko idazkari kontu-hartzaileak, Tokiko Ogasunei buruzko Legearen Testu Bateratuak 191.3 artikuluan eta apirilaren 20ko 500/1990 EDk 90. artikuluan xedatutakoa betez, honako txosten hau egin du:

**TXOSTENA:**

**1. ARAUDI ARAU-EMAILEA**

5/2013 Foru Araua, ekainaren 12koa, Bizkaiko Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa (FA).

2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duena (TOLTB).

1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Aurrekontu-egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onartu duena, Tokiko Erakundeetan aplikatzeari dagokionez.

500/1990 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, 39/88 Legearen seigarren tituluaren aurrekontuei buruzko lehenengo kapitulua garatzen duena.

Europar Batasuneko Kontseiluaren 2223/96 zenbakiko araudia (CE), 1996ko ekainaren 25koa, Nazio eta Eskualde Kontuen Europako Sistemari buruzkoa (SEC 95).

Toki Korporazioetara egokitutako Kontabilitate Nazionaleko Defizita kalkulatzeko gidaliburua, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak argitaratutakoa.

Defizit Publikoari eta Zor Publikoari buruzko SEC 95en gidaliburua, Eurostatek argitaratutakoa.

Aurrekontua Betearazteko Arauak.

**2. ESPEDIENTEAREN DOKUMENTAZIOA**

a) Idazkari-kontuhartzaileak Erakundearen 2013ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren Proiektuan aurrekontu-egonkortasunari buruzko helburua betetze-maila ebaluatzeari buruz egindako txostena.

b) Ekonomia eta finantza plana, Udalaren osoko bilkurak onetsi duena.

c) Erakundearen 2013ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren Likidazio Proiektua.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

d) Likidazioaren dokumentazio osagarria.

### 3. AURREKONTU EGONKORTASUNAREN TXOSTENA

Aurrekontu-egonkortasunaren kontzeptua honela defini daiteke: kontabilitate nazionalari erreparatuz, aurrekontua egin, betearazi eta likidatzeko orduan diru-sarrera eta gastu ez-finantzarioen artean oreka izatea; hala, diru-sarrera ez-finantzarioek gastu ez-finantzarioak gainditzen badituzte, finantzazio-gaitasuna izango dugu eta, kasua alderantzikoa izanez gero, hau da, sartu baino gehiago gastatzen bada, finantzazio-beharraren egoeran egongo gara; hortaz, ezegonkortasuna sortzen da. Are gehiago, Gobernuak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako finkatutako mugak gainditzen badira, ekonomia eta finantza plana bideratu beharko litzateke (Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 21. artikulua), helburuak urtebetean betetzea ahalbidetzen duena.

Aurrekontu-egonkortasunak badakar finantzakoak ez diren baliabide arruntak eta kapital baliabideak nahikoa izatea, finantzakoak ez diren gastu arruntei eta kapital gastuei aurre egiteko. Udalaren inbertsio gaitasuna finantzakoak ez diren kapital baliabideek eta gastu arruntetan erabili gabeko baliabide arruntek (aurrezki gordina) zehaztuko dute.

5/2013 Foru Arauaren 2. artikulua aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa eraginkorra izateko neurriak arautzen ditu, eta 1. idatz-zatian honako hau zehaztu du: "Bizkaiko toki-erakundeek aurrekontu-egonkortasuneko helburua bete behar dute, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan hartzen diren erabakien esparruan, EAEko administrazio publiko guztientzat Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan Estatuarekin adosten diren akordioak ikusita.

Aurrekoa gorabehera, aurrekontu-egonkortasuneko helburu hori betetzat joko da, baldin eta toki-erakundeak aurrekontu-oreka edo aurrekontuko superabita badu".

Honako hau adierazi du 2. idatz-zatian: "Aurrekontu-egonkortasuneko helburua bete behar da bai aurrekontuak prestatzeko prozeduran, bai haiek onartu eta gauzatzekoan. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeek aurrekontu-gauzatzeari buruzko datuen jarraipena egin eta gastu publikoa doitu behar dute, ekitaldia ixten denean ez dadin bete gabe geratu aurrekontu-orekako helburua".

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 11.4 artikulua honako hau ezarri du: "Toki-erakundeek aurrekontu-oreka- edo superabit-egoeran egon beharko dute". Horrela, Ministroen Kontseiluak 2012ko uztailaren 20an oreka ezarri zuen Tokiko Erakundeetarako aurrekontu-egonkortasunaren helburu gisa 2013-2015eko hirurtekoarako.

Ohiko lurralde-erakundea den neurrian, Udalak bere aurrekontu-egonkortasuna Kontuen Europako Sistemak zehaztutako finantzazio-gaitasun edo -beharraren arabera neurtu behar du. Aurrekontu-egonkortasuntzat joko da egiturazko orekaren edo soberakinaren egoera (Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 3.2 artikulua).

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiaren (EAKN) gidaliburuaren eta Tokiko Erakundeekiko Finantza Harremanetarako Zuzendariordetza Orokorrek hori interpretatzeko duen moduaren arabera, aurrekontuaren mende dauden toki-erakundeek finantzaketa gaitasunaren/beharrizanaren kalkulua diru-sarreraren egoera-orriko 1. eta 7. kapituluetan aurrekontuan adierazitako zenbatekoen eta gastuen egoera-orriko 1. eta 7. kapituluetan aipatutako zenbatekoen arteko aldearen bidez egiten da, finantzakoak ez diren diru-sarreraren eta gastuen balorazioari, aldi baterako egozpenari, bazterketari edo gehikuntzari buruzko doikuntzak aplikatu eta gero.





Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

Udalaren aurrekontu-kontabilitatearen eta kontabilitate nazionalaren (SEC 95) artean egozte-diferentziak daudenez, aurrekontu-egonkortasuna kalkulatzeko, hainbat doikuntza egin behar dira. Doikuntzak Defizit Publikoa Kalkulatzeko Eskuliburuak, EAKNk argitaratutakoak, adierazitako moduan egingo dira.

Aurrekontu-egonkortasunaren helburua kontabilitate nazionalaren aldetik adierazten da; hau da, Europako Kontuen Sistemaren (SEC 95) irizpide metodologikoak aplikatzen dira. Erakundearen 2013ko ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren Likidazio Proiektuan aurrekontu-egonkortasunari buruzko helburua betetzen den zehazteko, beharrezkoa da "eragiketa ez-finantzario"engatiko aurrekontuaren likidazioaren saldoa eta kontabilitate nazionalaren saldoaren arteko baliokidetasuna ezartzea (I. eta VII. arteko kapituluak).

2013ko ekitaldiko aurrekontuaren betearazpena eta likidazioa aztertuta, hurrengoak lortu dugu:

#### ZARATAMOKO UDALA

Gastuak		UDALA
Kapituluak	Azalpena	Zenbatekoa
I	Langile-gastuak	607.000,77
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	1.031.373,36
III	Finantza-gastuak	6.241,90
IV	Transferentzia arruntak	64.343,07
VI	Inbertsio errealak	551.209,72
VII	Kapital-transferentziak	0,00
Gastuak, guztira (1)		2.260.168,82
Sarrerak		
Kapituluak		
I	Zuzeneko zergak	532.426,18
II	Zeharkako zergak	- 17.829,77
III	Tasak eta bestelako sarrerak	200.121,61
IV	Transferentzia arruntak	1.176.864,84
V	Ondare-sarrerak	156.798,67
VI	Inbertsio errealak besterentzea	162.638,41
VII	Kapital-transferentziak	323.142,65
Sarrerak, guztira (2)		2.534.162,59
<b>AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA (+) EDO DOITU GABE (3)= (2)-(1)</b>		<b>+ 273.993,77</b>

#### *Aurrekontuaren likidazioaren gainean egin beharreko doikuntzak*

a) Gastu-aurrekontuaren egozpen-aldeak. Kontabilitate nazionalan, normalean, "sortzapenaren printzipioarekin" bat egozten dira gastuak; udal aurrekontuan, berriz, kutxaren irizpidea erabiltzen da, eta gastua obligazioa onartu eta likidatzen duen ekitaldian kontabilizatzen da (Obligazio Aitortu Garbiak).



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

**UDALAREN 2013KO EKITALDIKO KONTABILITATEA.** Aurreko ekitaldietan ez bezala, itxitako ekitaldietan egindako gastuen obligazioak aitortu eta likidatu EZ direla adierazi du, hau da, ez da egon kredituak judizioz kanpo onartzerik. Halaber, aurrekontuari aplikatzeko (Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatik hartzekodunak) dauden eta ekitaldian egin diren gastuei dagozkien obligazioen (nik neuk ezagutzen ditudanak, behintzat) zenbatekoa zero eurokoa da (*kontabilitate nazionalean gastutat jotzen dira*). Hau da, EZ dago fakturarik tiraderetan eta, horren ondorioz, ez da egokia inolako doikuntza egitea kontzeptu horiengatik.

Ekitaldiko gastuen aurrekontuari aplikatzeko dauden obligazioak (fakturak tiraderetan)		Doikuntza
Zaratamoko Udala	0,00 €	0,00 €
413 zenbakiko kontuari dagokion doikuntza, guztira	0,00 €	0,00 €

Ekitaldian hitzartutako maileguen interesak, mugaeguneratu gabe daudenak: Kontabilitate nazionalean sortutako interesak, mugaeguneratu gabe daudenak, ekitaldiko gastuak dira, eta, beraz, aurrekontuaren gastuak gorantz doitzeko kontuan hartuko dira.

Ekitaldian hitzartutako maileguen interesak, mugaeguneratu gabe daudenak		Doikuntza
Udala	0,00 €	0,00 €
Interesen doikuntza, guztira	0,00 €	0,00 €

Erakunde publikoak emandako diru-laguntzak: Kontabilitate nazionalean erakunde ordaintzaileen irizpidea da nagusi; beraz, aurrekontu-kontabilitatearekin ez da desberdintasunik izango, diru-laguntzak herri-erakundeak ematen baditu (IV. eta VII. kapituluak), erakunde ordaintzailea den aldetik.

Inbertsioak egitea: VI. kapituluan, kontabilitate nazionalaren irizpidearen arabera, ibilgetuak erosten direnean horiek islatu behar dira jabetza transmititu eta ondasuna ematearen irizpideari jarraituz. Arau orokorra kontabilitate nazionalaren eta aurrekontu-kontabilitatearen artean desberdintasunik ez egotea da, obra-ziurtagiriak onartzen direnean bi kasuetan modu berean islatzen baitira. Arazoa beranduago ordaindu behar direnak erosten direnetan izan daiteke; horietan jabetza hasieran transmititzen da, baina, ordainketa, hau da, aurrekontu-gastua denboran luzatzen da. Kasu horretan, doikuntza egokiak egin beharko dira.

Gastuen doikuntza, guztira	(KJKO+ 413 zenbakiko kontua + Interesak + Bestelakoak)	0,00 €
----------------------------	--	--------

b) Sarrera-aurrekontuaren egozpen-aldeak. Kontabilitate nazionalean zergen sarrerak, oro har, "kutzaren irizpidearekin" bat egotzen dira (diru-bilketa likidoa: uneko ekitaldia + itxitako ekitaldiak); udal aurrekontuan, aldiz, sortzapenaren printzipioa da nagusi, eta, beraz, sarrera eskubidea onartu eta likidatzen duen ekitaldian kontabilizatzen da (Eskubide Aitortu Garbiak).



Zarzamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

**UDALAREN 2013KO EKITALDIKO KONTABILITATEA.** Honako eragiketa hauek agertu ditu:

Sarreraren aurrekontuen doikuntza: I., II. eta III. kapituluak	DIRU-BILKETA				Doikuntza (3)=(2)-(1)
	Eskubide aitortu garbiak (1)	Uneko aurrekontua	Itxitako aurrekontuak	Guztira (2)	
I	532.426,18 €	522.417,52 €	15.051,80 €	537.469,32 €	5.043,14 €
II	-17.829,77 €	- 17.908,77 €	10.102,95 €	-7.805,82 €	10.023,95 €
III	200.121,61 €	187.629,51 €	11.174,38 €	198.803,89 €	- 1.317,72 €
Guztira	714.718,02 €	692.138,26 €	36.329,13 €	728.467,39 €	13.749,37 €

*Diruzaintzaren soberakinetatik etorrira, sortutako eta mugaeguneratu gabeko interesak, ekitaldian merkatuan jarritakoak:*

Kontabilitate nazionalean sortutako interesak, mugaeguneratu gabe daudenak, ekitaldiko sarrerak dira, eta, beraz, aurrekontuaren sarrerak gorantz doitzeko kontuan hartuko dira. Udalak ez du diruzaintzako gerakinik, eta, ondorioz, ez da doikuntzarik egin behar.

*Estatuko Zergetako Partaidetza (EZP) eta UDALKUTXA*

Kontabilitate nazionalean EZPri dagozkion sarreraren konturako entregak "kutxaren printzipioarekin" bat egotzen dira, eta horren ondoriozko behin betiko likidazioa, zenbatekoa zehaztu eta ordaintzen denean. Aurrekontu-kontabilitatean halako sarrera aldirerakoa da; hala, eskubidearen onarpena eta sarrera sarrera hori egiten denean sortzen dira. Beraz, ohikoa da aurrekontuaren egozpen-irizpideak eta kontabilitate nazionalarenak bat etortzea. Irizpideak desberdinak badira, dagokion doikuntza aplikatuko da:

Udalkutxako partaidetza	DIRU-BILKETA				Doikuntza (3)=(2)-(1)
	Eskubide aitortu garbiak (1)	Konturako aurrerakinak	Likidazioa	Guztira (2)	
IV	991.074,00 €	991.074,00 €	7.275,00 €	998.349,00 €	7.275,00 €
Udala, guztira	991.074,00 €	991.074,00 €	7.275,00 €	998.349,00 €	7.275,00 €

*Europar Batasunak funtsen aurrerakin gisa emandako diru-laguntzak:*

Kontabilitate nazionalean hori eragiketa finantzariotzat jotzen da, eta, beraz, aurrekontu-egonkortasuna kalkulatzeko ez da sarreratzat jotzen. Hori dela eta, sarreraren aurrekontuari doikuntza negatiboa egin behar zaio, eta haren zenbatekoa Europar Batasunetik funtsen aurrerakin gisa jasotako diru-laguntza bakoitzarena izango da. Udalarik ez dio eragiten, ez baitu funtsik jaso erakunde horretatik.



Zarateamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zarateam@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zarateam@bizkaia.org)

### Jasotako diru-laguntzak:

Kontabilitate nazionalen erakunde ordaintzaileen irizpideari jarraitzen zaio, hau da, ordaintzaileak gastua erregistratzen duenean, transferentziaren hartzailleak aldi berean kontabilizatu behar du, eta zenbatekoa lehenengoaren kontuetan agertzen den berdina izango da. Eragiketa horien aurrekontu-tratamenduaren ondorioz, diru-laguntzen erakunde hartzailleak eskubidea onartuko du sarrera jasotzen duenean, erakunde emaileak bere alde ordainketa-obligazioak onartu dituela egiaz ezagutzen duenean izan ezik. Beraz, ohikoa da aurrekontuaren egozpen-irizpideak eta kontabilitate nazionalarenak bat etortzea, eta, irizpideak desberdinak badira, dagokion moduan doitu da. Erakunde ordaintzaileen eskutik informaziorik ez badago, ez da inolako doikuntzarik egingo.

Diru-laguntzak	Eskubide aitortu garbiak (1)	Erakunde ordaintzaileen irizpidea (AOG)(2)	Doikuntza (3)=(2)- (1)
Diru-laguntzak	323.142,65 €	323.142,65 €	0,00
Udala, guztira	323.142,65 €	323.142,65 €	0,00

Sarreraren doikuntza, guztira	(I. eta III. arteko kapituluak + Interesak + Bestelakoak)	21.024,37 €
----------------------------------	--	-------------

### Doikuntzen ondoko aurrekontu-egonkortasuna:

Udalerako aurrekontu-egonkortasunari dagokion azterketaren emaitzak aurkeztu dira. Honako hauek dira:

DOITUTAKO AURREKONTU-EGONKORTASUNA	
ZARATAMOKO UDALA	
2013	
1.- Sarrera ez-finantzarioak (EAG 1. eta 7. arteko kap.)	2.534.162,59
2.- Gastu ez-finantzarioak (OAG 1. eta 7. arteko kap.)	2.260.168,82
3.- Likidazioaren superabit (+) edo defizit (-) ez-finantzarioa (1-2)	273.993,77
4.- Doikuntzak (SEC 95) <sup>1</sup> :	21.024,37
(-) Gastu-aurrekontuaren doikuntzak	0,00
(+) Sarrera-aurrekontuaren doikuntzak	21.024,37
5.- Finantzazioaren gaitasuna (+) edo beharra (-) (3+4)	295.018,14
Sarrera ez-finantzarioaren ehunekoan (5/1)	% 11,64

2013ko ekitaldiari dagokion Zarateamoko Udaleko Aurrekontu Orokorraren Likidazio Proiektuak aurrekontu-egonkortasunaren helburua (oreka edo superabita) **BETETZEN DU**.

<sup>1</sup> Sarrera-aurrekontuaren doikuntza positiboak (superabita) batzen dira, eta negatiboak kentzen dira (defizita). Gastu-aurrekontuaren doikuntza positiboek dagokienez, horiek kentzen dira (defizita), eta negatiboak batzen dira (superabita).



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## 2.- AURREKONTU-EGONKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN EMAITZA.

Erakundearen 2013ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren Likidazio Proiektuan aurrekontu-egonkortasunaren helburua ebaluatu ondoren, hurrengo emaitza lortu da:

Finantzaketaren gaitasuna (kotsolidatua) = 295.018,14 € (% 11,64)

Ebaluazioaren emaitza: Aurrekontu-egonkortasunaren helburua (oreka edo superabita) **BETETZEN DU**.

Lege-agindua betez, hau da egiten den txostena, zuzenbidean hobeto oinarrituta dagoen beste edozein alde batera utzi gabe. Zortzi orrialde ditu, 1.etik 8.era zenbakituta.

Zaratamon, 2014ko martxoaren  
8an  
Idazkari-kontuhartzailea

José Manuel Garrote Milán



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

*Idazkari-kontuhartzaileak Udalaren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen doikuntza planaren betetze-mailaren ebaluazioari dagokionez egin duen txostena, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek dituzten zor jakin batzuk finantzatzeko prozedura arautzen duen ekainaren 26ko 111/2012 FORU DEKRETUAREN "Doikuntza planaren jarraipena" izeneko 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

*2011ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioa orekatuta ez dagoenez, toki erakundeak ekonomia eta finantza plana egin eta onetsi behar izan zuen epe ertainean, hori zuzentzeko. Udalaren osoko bilkurak hori onetsi zuen 2012ko azaroaren 29an egindako bileran, eta asmoa egoera orekatura itzultzea da 2015eko ekitaldiaren amaierarako.*

*Planaren betetze-maila "erlatiboa" da, aurrekontuari dagokionez. Sarrereri dagokienez, zenbatekoak neurri handian doitu dira. Hala ere, ez da gauza bera gertatu gastuekin, udaleko langile publikoen soldata murrizketak eta izozketak izan ezik.*

*Bilera horretan bertan hornitzaileei ordaintzeko Doikuntza Plana onetsi zen. Bizkaiko Foru Aldundiak aldeko txostena eman zion doikuntza plan horri 2012ko azaroaren 16an, eta bertan Udalari honako hau gogorarazten zitzaion, besteak beste:*

*"... 2.- 111/2012 Foru Dekretuaren 6. artikulua ezarri bezala, ekainaren 21eko 5/2012 Foru Arauan ezarritako zorpetze eragiketak hitzartzen dituzten udalek, aurrekontuaren likidazioarekin batera, onetsitako doikuntza planaren eqikaritzapenari buruzko kontuhartzailera txostena bidali beharko diote urtero Lehendakaritza Sailari.*

*3.- Doikuntza plan honen indarraldian diruzaintzako gerakin negatiboa sortzeak hurrengo ekitaldian inbertsio berriak egiteko debekua ekarriko du berekin.*

*4.- Doikuntza plana ez betetzeak Bizkaiko Foru Aldundiak deitzen dituen diru-laguntzetan onuradunaren izaera eskuratzeko ezintasuna ekarriko du".*

*Azaroaren 7an, ostegunean, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailari atxikitako Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako zuzendaritza nagusiak bidalitako idazkia erregistratu zen. Horretan informazioa eskatzen zuen indarreko 2012-2022ko Doikuntza Planaren betetze-mailari buruz, 2013ko ekitaldiaren amaieraren balioespena oinarri hartuta.*

*Hori betetzeko, azaroaren 12an txostena egin eta bidali zen (irteera-erregistroko zk.: 884; eta Lehendakaritza Saileko sarrera-erregistroko zk.: 22356, egun berekoa).*

*Aipatutako txostena egin eta bidali zenetik hilabete batzuk igaro ondoren, txostena eguneratu, eta honako datu hauek gehitu ditu:*

*Zaratamoko Udalak aurkeztutako Doikuntza Planean hausnartu diren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailak onetsitako txostenaren 4. idatz-zatian adierazi diren sarrerren aurreikuspenei dagokienez, honako hau adierazi behar da:*

*Lehenengoa.- Udalaren osoko bilkurak, 2012ko azaroaren 5ean egindako ohiko bileran, Ondasun Higiezin*



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

gaineko Zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzea erabaki zuen. Horrela, zerga tasa gorantz aldatu zen, % 0,85etik % 1era. 2012ko azaroaren 12ko, astelehena, 216 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen, eta 2012ko ekitaldiko zenbatekoaren aldean, zerga-bilketak % 56 baino gehiago gora egitea ekarri du, hau da, 96.904,87 € gehiago.

**Bigarrena.-** Udalaren osoko bilkurak, 2012ko azaroaren 5ean egindako ohiko bileran, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzea erabaki zuen. Horrela, 2011ko otsailaren 4an onetsitako tarifen taulak % 5 gora egin zuen. 2012ko azaroaren 13ko, asteartea, 217 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen. 2011ko ekitaldian lortutako diru-bilketa 202.404,22 eurokoa izan zen; 2012ko ekitaldian eta 2013ko ekitaldian lortutakoak, aldiz, 219.166,17 euro eta 224.247,88 euro, hurrenez hurren. Horiei itxitako ekitaldiko sarrerari dagozkien 15.051,50 euroak gehitu behar zaizkie.

**Hirugarrena.-** Udalaren osoko bilkurak, 2012ko azaroaren 5ean egindako ohiko bileran, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzea erabaki zuen. Horrela, ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntza koefiziente bakarra gorantz aldatu zen, 1991ko abenduaren 27an onetsitako % 1,2tik % 1,5era (% 25). 2012ko azaroaren 12ko, astelehena, 216 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen, eta diru-bilketan izan duen eragina honako hau da:

2012ko ekitaldian lortutako diru-bilketa 98.496,48 eurokoa izan zen; horretatik 57.115,00 euro estatuko eta probintziako kuotei dagozkie, eta **41.381,26 euro, berriz, udaleko kuotei.**

2013ko ekitaldian lortutako diru-bilketa 82.171,69 eurokoa izan zen; horretatik 27.409,96 euro estatuko eta probintziako kuotei dagozkie, eta **54.761,73 euro, berriz, udaleko kuotei.**

**Laugarrena.-** Doikuntza Planean adierazi bezala, Udalak bere buruari proposatu zion zerbitzu publikoak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren aipatutako tarifak urtero eguneratzen jarraitzea, zaborra jaso eta deuseztatzeko zerbitzuaren, estolderia zerbitzuaren eta udal hilerriko zerbitzuen eremuetan. Horrela, eskatu beharreko betebeharrak betetzeko behar diren gutxieneko kredituei aurre egin ahal die, eta, horren ondorioz, orekatu egiten dira aipatutako zerbitzuak emateagatiko sarrerak eta horien kostua. Helburu hori izanda, Udalaren osoko bilkurak, 2013ko irailaren 26an egindako ohiko bileran, tarifen taulak % 20 gora egiteko aldatzea onetsi zuen. Taula hori 2013ko urriaren 2ko, asteazkena, 189 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen.

Diru-bilketaren balioespenari dagokionez, nahiko argi antzeman daiteke Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak unera arte bidalitako likidazioetan hori gehitu egin dela. Adibidez, 2010eko eta 2011ko ekitaldietan zaborren kontzeptupean 46.331,00 eta 46.339,60 euro bildu arren, zenbateko horiek 71.279,24 eurokoa eta 99.136,46 eurokoa izan dira 2012ko eta 2013ko ekitaldietan, hurrenez hurren.

Zenbaki horiek ikusita pentsa daiteke 2015eko ekitaldiaren amaierarako benetan orekatuko direla aipatutako zerbitzuak emateagatiko sarrerak eta horien kostua.

Hori guztia azalduta, txosten hau sinatu duenak uste du Doikuntza Planean presio fiskalaren gehikuntzari lotuta hausnartu diren neurriak BETE direla.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

4.- Gastuen aurreikuspenei dagokienez, nahiz eta egia den derrigorrezkoak ez ziren zenbait zerbitzu murrizten edo desagerrarazten joan direla, ez da gauza bera gertatu (salbuespenak albuespen) kanpoko kontratuen negozio berriekin eta zenbait arlotako gastuen (publizitatea, propaganda, telefonoa...) murrizketarekin.

Aurretik azaldutakoa laburbilduta, txostena sinatu duenak jakinarazi nahi du Doikuntza Plana ondo betetzen ari dela. Gainera, badirudi aurreko ekitaldiko sarrerek eta gastuek aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa, gastuaren araua eta apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak ezartzen duen gehieneko zorpetze maila betetzen dituztela.

Zaratamon, 2014ko martxoaren 8an  
Idazkari-kontuhartzailea

José Manuel Garrote Milán





Zaratamoko Udala

Bizkaia

Tel. 94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## ZARATAMOKO 2013KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

### DOKUMENTUEN AURKIBIDEA:

- 1.- LIKIDAZIOAREN TXOSTENA (2. eta 17. arteko orriak)
- 2.- ERANSKIN OSAGARRIAK (18. eta 20. arteko orriak)
- 3.- AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN TXOSTENA (21. eta 27. arteko orriak)
- 4.- DOIKUNTZA PLANAREN TXOSTENA (28. eta 30. arteko orriak)